

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Sumision City Blues.**  
Sumision City Blues.  
Autoekoizpena.  
Iraupena: 16'43".  
5 euro.

## Predikatzekeo tempo

GASTEIZKO Obligaciones taldeak ibilbidea eten zuen onespén handiena zueñean eta talde hartako bi partaidek, Iñakik eta Antik, eskarmentua zuten beste bi azeri gasteiztarrekin, Penikerekin eta Davidekin bat egin zuten. Hirian lur hartutako Sexty Sexersek Joseba batu zitzaizen eta proiektu berria egitea erabaki zuten, askeagoa. Bakoitzaren taldearen estiloak estututa zituen eta zerbait irekiagoa egin nahi zuten. Hala, bluesetik, Australiako tal-

deetatik, harrokeriatik eta hitz errezitatuetatik asko duen emaitza lortu dute, rock urbanoa, funkya eta beste hainbat joera batzeko gai dena. Musikari handiak beste tempo desberdin batean eta "Pela" frontman sinesgarria iruditeria handia duten gaztelaniatzko testu apokaliptiko-gizatiarrak antzetzten. Ia aldi berean kanta ugariz osatutako EP bat eta honako CDA kaleratu dituzte.

[www.myspace.com/sumisioncityblues](http://www.myspace.com/sumisioncityblues)

## Iñaki Urbizu "Pela" - Sumision City Blues

### «Inork ez du LP oso bat entzuteko astirik»

Punk-rockaz nekatuta? Zer da zuentzat?

Punk-rockak oraindik ere liluratzen gaitu, handik gatzelako eta hori gatzelako. Punka bizitza jarrera gisa ikusten dugu, baina talde batek gogor jo edo asko oihukatu arren, ez digu berez zurrara sortzen. Punk-rockak musikari luzarotan ez dio ezer interesgarri eman; bizirik dago baina uneoro errepikatuz. Eta errutina punkaren kontra-koa da erabat.

Mink Deville eta Cicatriz edo Nick Cave eta Eskorbuto? Halako etorria pizten dizute Bibliak eta kaleko okadek?

Mink De Ville eta Eskorbuto esan beharko dugu. Erljioek eta haien historiek asko erakartzen naute, eta antzinako garaietako, Bibliako eta Koraneko gauza asko irakurtzen ditut. Solemnitate handiz, odolez, intzestuz eta bidegabekeriaz beteta daude.



Hainbat formatutan abesti dosi txikiak kaleratzen diharduzue...

Bai, garaia zeharo aldatu dira: gaur egun musika eskuratzea inoiz baino errazagoa da eta inork ez dauka LP oso bat entzuteko astirik. Eta guri talde gisa aukera ematen digu sortu ahala kanta kaleratu, eta garapen azkarragoa izateko. Gainera, rock-and-roll onaren historia single eta EPetan grabatuta dago.

Taldean Penike eta Anti daude. Nolan ez duzue musika beltzean gehia-

go sakontzen, Miss Jacksonen tarteka egin duzuen bezala?

Penikek eta Antik bakoitzak artikulu oso bat mereziko lukete, musika beltza biziki maite dute. Musika beltza gustukoa izateko egin dago, eta gu gogaitzeko musika egin izan duten zurien eraginez musika egiten dugun beste zuri

batzuk gara. Miss Jacksonek ondo azaltzen du hori.

Bluesaren bitartez purutasunaren bila jo duzue, edo purutasunaren bila bluesa aurkitu duzue?

Bluesa rock-and-rollaren osagarri garrantzitsuena da, baina zeresan handia du horri gehitu nahi diotzunak. Bluesa garrantzitsua da gure musikan, baina baita ajea eta utzi gaituzten neskek ere. ■

